

ESANAK

JOSU JON IMAZ

(Eusko Jaurlaritzako bozeramailea)

«Sakabanaketa Giza Eskubideen Europako komenioaren aurka doa»

ANJELES IZTUETA

(Jaurlaritzako Justizia sailburua)

«Presoen senide eta lagunei merezi ez duten zigorra ezartzen zaie»

EAJ-KO GIPUZKU BURU BATZARRA

«Sakabanaketaren aurkako eta presoen hurbilketaren aldeko jarrerari eusten diogu»

RAFA LARREINA

(Eako bozeramailea)

«Kartzela politika bidegabea da presoen senideak ere zigortu egiten dituelako»

PP

«Soraluzeko Udalaren mozioak argi uzten du EAJ eta EA bat datozela Batasunarekin»

RODOLFO ARES

(PSE-EEko Antolakuntza idazkaria)

«EAJk eta EAK Soraluzeko Udalean agertutako jarrera mingarria izan da»

MIKEL ARANA

(EB-IUko bozeramailea)

«Gobernuari presioa egiten jarraitu behar dugu bere kartzela politika alda dezan»

GERMAN KORTABARRIA

(ELAko bozeramailea)

«Gobernuaren kartzela politikak presoekiko mendeku zantzua dauka»

LAB

«Sakabanaketaren aurkako inplikazio soziala handitu beharra dago»

POLIZI OPERAZIOA. Jose Tamboleo kataluniarra ere kartzelatu egin dute deklaratu ostean

Buruko kolpeen ondorioz bi egunez ikusmena galduta izan du Romanok

Lepokoarekin Entzutekira eraman eta deklaratu ondoren espetxeratzeko agindu du epaileak

Erredakzioa | DONOSTIA

Guillermo Ruiz Polanco Espainiako Entzutegi Nazionalako epaileak bi laguni hartu zien deklarazioa atzo, eta haien espetxeratzea agindu zuen. Unai Romano gasteiztarra eta Jose Tamboleo kataluniarra dira. Unai Romanok inkomunikatuta deklaratu zuen epailearen aurrean, eta deklaratzera eraman baino lehen epailearen bulegoko solairua hustu zuten.

Gogoratzekoa da Romano, ostiralean ospitalera eraman behar izan zutela. Gazteak buruan kolpe nabarmen bat zuen, eta eskumuturrean bere buruari eginiko horzkaden zauriak zituen, Entzutegi Nazionalako iturriek adierazi zuten. Hori dela-eta haren egoeratik oso kezkatuta agertu ziren senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Habeas corpus eskaera egin zuten senideek larunbatean, baina ez dute erantzunik jaso, eta atzo arte ez zuten epailearen aurrera eraman.

Deklarazioa amaitu ondoren, bere abokatuak eta amak gaztea ikusteko baimena eskatu zioten epaileari, eta eman zien. Ikustera joan zirenean, ordea, jada Soto del Real espetxerako bidean zela jakinarazi zieten.

AABen ustez, «argi dago epaileak gaztea berehala Soto del Realera eramateko agindua eman zuela. Horren arrazoia ere argi dago, Romanoren egoera inork ez ikustea». Romanoren deklarazio hartzean izan zen ofiziozko abokatuak adierazi zuenez gazteak tratatu txarrak jasan dituela salatu zuen epailearen aurrean, eta bere kontrako akusazio guztiak ukatu zituen.

Lau lagun aske geratu dira euren kabuz Entzutegian aurkeztu ondoren

Erredakzioa | DONOSTIA

Bestetik lau lagun joan ziren atzo Entzutegi Nazionalera deklaratzeko asmoz, baina epaitegian esan zieten une honetan ez dela beharrezkoa. Iraultza Urrutia, Maite Diaz de Heredia, Daniel Gutierrez eta Jose Luis Caminos dira lagun horiek.

TRATU TXARRAK

Galdeketa luzeen ostean bere ama hil egin zela esan zioten guardia zibilek Romanori, eta ziega batean sartu zuten

Halaber, Entzutegiko iturriek baieztatu zuten zuzen zuzen Romano lepoari zuzen eusteko lepokoa jarrita eraman zuten eta betondoak ubelduta zituen. Buruko kolpearen ondorioz «izugarritzko buruko mina» zuela ere adierazi zuten.

Arratsaldean bisita espetxean

Arratsaldean abokatuak Soto del Realeko mintza-tokietan ikusi zuen, eta baita tratatu txarren baieztapena egin ere. Amnistiaren Aldeko Batzordeak azaldu zuten zuzen zuzen, betondoak belztuta eta begiak gorri gorri eginda zituen Romanok, eta bularraldea ubeldua. Romanoren hitzetan, buruan jasotako kolpeen ondoriozkoak ziren aztar-na horiek. Lehenengo bi egunetan barrabiletan eta belarri atzean elektrodoak jarri zizkioten, eta poltsa izeneko tortura ere hainbat aldiz egin zioten.

Bigarren egunean galdeketa luzeen ostean guardia zibilek Romanori esan zioten bere ama hil egin zela. Hori esan ostean psikikoki gaizki jarri zela eta eskumuturrari hozkaka hasi zela esan zion abokatuari. Era berean, buruan jasotako kolpeen ondorioz bista galdu zuen egun horretan eta igandera arte ez zuten berreskuratu. Ondoren fo-

Proba kaligrafiko bana egin zieten eta ondoren etxerako bidea hartu zuten. AABek salatu zuten pertsona horiei buruz hedabideetan esan direnak, beren kabuz epaitegian aurkeztu ondoren aske geratu baitziren.

Albert Lambert eta Sonia Garciak jarraitzen dute atxilotuta. Azken horren senideek gaztearen kontrako akusazioak faltsuak direla esan zuten atzo. Sonia Garciak Kop rock taldeko abeslariarekin duen harremanagatik atxilotu dutela iritzi diote bere senide eta lagunek.



MONDELO / EFE

Guillermo Ruiz Polanco epailea artxiboko argazki batean.

rentseak ikusi zuen eta ospitale-
ra eraman zuten. Ospitalean eta
espetxean ere zenbait frogak
egin dizkiote gazteari.

Jose Tamboleori buruz, berri
agentziek kaleratu zuten gazte
horrek epailearen aurrean
onartu zuela Fernando Garcia

Jodra eta Marina Bernado gau
batez bere etxean izan zirela,
baina ETako kide zela jakin
zuenean joateko eskatu ziela
esan zuen, eta ETarekin ez
duela inolako zerikusirik. Ruiz
Polancok lagun hori ere espe-
txeratzeko agindu zuen.

FONDO SOCIAL EUROPEO
EUROPAKO GIZARTE FONDOABizkaiko Foru
Aldundia
Lan eta trebakuntza
SailaDiputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Empleo
y Formación

Enpresa-proiektuen sustatzaileei oinarritzko trebakuntza emateko ikastaroa

Helburua

Enpresa txikien sustatzaileak trebatzea, enpresa proiektuak bideragarriagoak izan daitezen.

Edukia

a) 200 ordutako trebakuntza teoriko-praktikoa:

- 'Enpresa zelan sortu, Negozio plana' (76 ordu).

- 'Enpresa berriaren kudeaketa' (124 ordu).

b) Enpresa abiarazteko, diru-laguntza.

Hartzaileak

Enpresa-asmoak nahiz proiektuak dituztenak.

Ikastaldia

01.10.9tik, 01.12.21era.

Ikastaroaren ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 16:00tik 20:00ra.

Eskaerak aurkezteko epea

2001eko irailaren 26ra arte.

Eskara-eredua eta argibideak

Lan eta Trebakuntza Saila
Obispo Orueta, 6
48009 Bilbo
Tel.: 94 420 73 00

Foru Diputatua